



Getariako Udala

2021IAKU0004

2021eko uztailaren 27a EGINDAKO BATZAR OSOAREN AGIRIA.-

=====

ALKATEA

Haritz Alberdi Arrillaga

BERTARATUAK

HARITZ ALBERDI ARRILLAGA
ITZIAR LARRAÑAGA ARREGI
IBON GEREKA BALENTZIAGA
ANE LOIDI LEUNDA
EKAITZ ESTEBAN PERTUSA
AITOR URRESTI MARTINEZ
M.ITZIAR ETXARTE OTEGI
JON ELICEGUI AIZPURU
IOSU MUJICA GARMENDIA

EZ BERTARATUAK

NAHIA ITURBE ZUBIZARRETA
ELENA URRESTI ARRUTI

IDAZKARIA

MARIA ZENDEGI ZELAIA

Getarian, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2021eko uztailaren 27a, arratsaldeko 19:00etan, Udalaren batzar osoa biltzen da saioan, goian aipatzen diren zinegotziak, Haritz Alberdi Arrillaga Alkatearen lehendakaritzapean.

Bertan aurkitzen da Udalaren idazkaria den MARIA ZENDEGI ZELAIA eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.

=====



Getariako Udala

GAI ZERRENDA

Audioaktaren onarpena: idazkari-kontu hartzaileak proposatzen dio Udalbatza osoari audioakten erabilpena onartzea.

GOBERNU ORGANUEN KONTROLA

- **Aurreko bileraren akta agiria onartu:** 2021eko maiatzak 25eko Ohiko Osoko bilkura. Osoko bilkurako deialdiarekin batera honako akta agiriak banatu zaizkie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez ditzaten. Oharrik aurkeztu ez direnez, idatzita dauden era berean ahobatez onartzen dira.

- **Alkatearen Erabakien berri ematea:** B21/0335 - B21/0376. Indarrean dagoen Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko (2568/1986ko E.D. azaroaren 28koa) 42 artikuluan adierazten duen ondorengotarako, Batzarrari, ohiko azken bileraz gero, Alkatetzak eman dituen ebazpenak aditzera ematen zaizkio. Osoko bilkurako deialdiarekin batera alkate erabakien zerrenda bidali zaizkie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez ditzaten. Oharrik aurkeztu ez direnez, idatzita dauden era berean ahobatez onartzen dira.

- **Erregu eta galderak.** Oharrik aurkeztu ez direnez, idatzita dauden era berean ahobatez onartzen dira.

ALDERDI ERABAKITZAILEA

1.- IRIZPENA: Datu Pertsonalen Babeserako Legeak onartzen duen Getariako Udaleko Segurtasun Politika onartzea, 7/2021 Batzordean, 2021eko ekainak 29koa, irizpena eman ondoren.

Aldeko bozak 9, kontrako bozak 0 eta abstentzioak 0.

2.- IRIZPENA: Makibarreko hitzarmena onartzea, 8/2021 Batzordean, 2021eko uztailak 20koa, irizpena eman ondoren. Konbenioak eta planoak.

Aldeko bozak 9, kontrako bozak 0 eta abstentzioak 0.

3.- IRIZPENA: Etxebizitza tasatu baten desafekzioa onartzea, 8/2021 Batzordean, 2021eko uztailak 20koa, irizpena eman ondoren. Mugikortasun urriko pertsonentzat, erreserbatutako izaera galdutzat ematea Sahatsaga - Goia XVII HEAko a.20.XVII.1 lurzatian eraikitako etxebizitza tasatu honi eta bere eranskinei.

Aldeko bozak 9, kontrako bozak 0 eta abstentzioak 0.

4.- IRIZPENA: Gazteen etxebizitzaren alokairua ordaintzeko dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarriak onartzea, 8/2021 Batzordean, 2021eko uztailak 20koa, irizpena eman ondoren.

Aldeko bozak 9, kontrako bozak 0 eta abstentzioak 0.



Getariako Udala

5.- IRIZPENA: 2020eko ekitaldi ekonomikoaren Kontu Orokorraren behin betiko onarpena, 8/2021 Batzordean, 2021eko uztailak 20koa, irizpena eman ondoreen eta behin alegazio epea amaituta.

Aldeko bozak 9, kontrako bozak 0 eta abstentzioak 0.

-Eta besterik gabe, Alkateak bilera amaitzea erabaki zuen, arratsaldeko 19:20 zirenean.-

Sinatzailea: ALKATEAK Haritz Alberdi Arrillaga	
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAA2086K.Vdjf	